

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## Udal garbiketa zerbitzuek 3.500 kilo hondakin erretiratu dituzte San Joan gauaren ostean

*Zabaldutako dispositibo bereziari esker, hondartzak eta sarbideak erabat garbi eta erabiltzeko egoera ezin hobean geratu dira goizeko lehen ordutik*

Udaleko garbiketa zerbitzuak buru-belarri aritu dira lanean goizaldean, San Joan gaua ospatu ostean Donostiako hondartzak normaltasunera itzultzeko.

Lanak goizeko 5:00etan hasi ziren eta hiriko hondartzetan egin dira, batez ere Zurriolan, ospakizun horretan jende gehien biltzen duen gunetako batean. Zabaldutako dispositibo bereziari esker, hondartzak eta sarbideak erabat garbi eta erabiltzeko egoera ezin hobean geratu dira goizeko lehen ordutik.

Guztira, 3.500 kilogramo hondakin atera dira, gauean pilatutako su, errauts eta bestelako materialen hondakinak barne.

Lan horiek egiteko, operatibo bat mobilizatu da: bi traktore dumper kamioiarekin, anplirroll kamioi bat, bi pick-up ibilgailu eta 23 langile. Modu koordinatuan lan egin dute, hareatzak azkar leheneratzen direla bermatzeko.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi delegatuak nabarmendu duenez, "helburua zen hondartzak erabat erabilgarri eta operatibo egotea goizeko lehen ordutik, batez ere tenperatura altuek markatutako egun batzuetan, jende asko joaten baita hareatzetara eguneko lehen orduetatik".

Era berean, adierazi duenez, "San Joan gaua oso ospakizun garrantzitsua da hiriarentzat, baina erronka logistiko garrantzitsua ere badakar. Hori dela eta, berariazko dispositibo bat planifikatzen da, tradizio horretaz gozatzea eta gure hondartzak mantentzea eta kontserbatzea bateragarri egiteko".

Garciak azpimarratu duenez, "goizaldean egindako lanari esker, hareatzek baldintza ezin hobean ireki ahal izan dute jardunaldia, herritarren eta bisitarien gozamenerako".